

LB_2_Kimika_Programazio_Laburpena

Irakaslea	Izaskun Jorajuria / Jose Zulaika	Maila	Batxilergo 2. maila	Ikasturtea	2020-21
-----------	----------------------------------	-------	---------------------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

HELBURU OROKORRAK

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/

UNITATETAK ETA DENBORALIZAZIOA

Formulazioa. Kontzeptu orokorrak	1.EBALUAZIOA
Atomoaren egitura eta Sistema Periodikoa	
Lotura kimikoa	2.EBALUAZIOA
Zinetika eta oreka kimikoa.	
Protoi transferentziaren erreakzioak	
Elektroi transferentziaren erreakzioak	3.EBALUAZIOA
Karbonoaren kimika	

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Ibaizabal argitaletxearen liburua erabili eta jarraituko dugun arren, batzuetan apunteak eta ariketekin osatuko dugu.

Gelaz gain laborategia erabiliko dugu eta bertako materialaz (praktikak egiteko) baliatuko gara.

Ariketak ebazteko kalkulagailu zientifikoa ezinbestekoa da

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Ikasleen notak lortzeko egindako azterketak (praktikoak, teorikoak, laborategiko praktikei buruzkoak...) praktiken txostenak, gelako koadernoak, klasean nahiz etxean egindako lana eta jarrera erabiliko ditugu.

- Ebaluazio bakoitzaren nota horrela lortuko da:

***Azterketak: %90**

- Ebaluazioaren erdialdera: kontrol partzial bat, ordurarte ebaluazio horretan ikusitakoarekin. %30a balio du.
- Ebaluazioaren bukaeran azterketa global bat: ebaluazio osoa sartzen da. Azterketa honek %70a balio du, eta ebaluazioa gainditu ahal izateko azterketa honetan 4,0-tik gora atera behar da.
- Ebaluazioa gainditzeko, azterketa guztien batezbestekoak 5,0 izan behar du gutxienez.
- **Salbuespena:** 1. ebaluazioko azterketa partzialean formulaketa inorganikoa eta organikoa sartuko dira; gutxienez formulen %75a eduki behar da ongi eta formulazioko atal bakoitza gainditu behar da. Globalean, lehen ebaluazioko materia guztia sartuko da, formulaketa ezik.

***Eguneroko behaketa: %10**

- Klaseko lana, etxeko lanak, laborategiko praktikak, koadernoak eta bidaltzen diren jarduerak.
Ezinbestekoa da lan hauek guztiak entregatzea ebaluazioa gainditzeko. Bestela, ikasleak ebaluazioa suspendituko du eta errekerperazio azterketa egunean aurkeztu beharko ditu ebaluazioa errekerperatzeko.
- Jarrera: Klaseko portaera (ikaskide, irakasle eta ingurunearekiko begirunea) eta euskararen erabilera
Ikasleak jarrera egokia izan behar du ebaluazioa gainditzeko. Jarrera txarra izan badu ebaluazioan zehar, ebaluazioa suspendituko du. Ebaluazioa errekerperatzeko modua, hurrengo ebaluazioan "jarrera" gainditua edukitzea izango da.

Ebaluazioko nota 5,0-tik beherakoa bada, ebaluazioko nota gainditu gabea izango da, eta ebaluazio osoaren errekerperazioa egingo da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

- Ebaluazioa **lanen bat ez entregatzeagatik** suspenditu bada, errekerperazioko egunean lan hori entregatu beharko da.
- Ebaluazioa **jarrera txarrarengatik** suspenditu bada, hurrengo ebaluazioan "jarrera"-ren atala gaindituz gero errekerperatzen da bakarrik. Suspenditutako ebaluazioa hirugarrena bada, ikasgaiaren azterketak suspendituta edukiko bazituen trataera berdina izango du errekerperazioari begira.
- Ebaluazioa **azterketak ez gainditzeagatik** suspenditu bada:
 - Azterketan ebaluazio osoa errekerperatzen da; hau da, ebaluazioko unitate guztiak sartzen dira (nahiz eta azterketa baten nota 5,0-tik gorakoa izan).
 - Ebaluazio bakoitzaren errekerperatze azterketa bat egonen da. Derrigorrezkoa da egitea, nahiz eta ebaluazioaren nota 4,0 - 4,99 izan; errekerperazio azterketara aurkeztu ez bada, errekerperazio azterketaren kalifikazioa "0" izango da, eta kalifikazio horrekin kalkulatu da errekerperazioaren nota.
 - Formulaketaren errekerperazioak trataera bereizia du.

ERREKUPERAZIOAREN NOTA, honela kalkulatzen da:

- Errekerperazio azterketaren nota: % 70a
- Ebaluazioan izandako nota: % 30-a

FROGA GLOBALA: kurtso bukaeran, ebaluazio bat edo gehiago gainditu gabe duten ikasleentzat:

- **Ebaluazio bakarra** gainditu gabe daukan ikasleak, ebaluazio horren errekerperazioa egingo du globalean baldin eta:
 - 4,0 baino nota baxuagoa badu ebaluazio horretan; horrelakoetan, ebaluazio horren errekerperazioa egingo du globalean.

- 4,0 eta 4,99 bitarteko nota badu ebaluazio batetan, eta gainera hiru ebaluazioen batez besteak 5,0 baino gutxiago ematean badio; horrelakoetan ere, ebaluazio horren errekerazioa egingo du globalean.

Kasu hauetan, ebaluazio horren errekerazioaren nota lehen aipatu bezala kalkulatu da.

- **Bi edo hiru ebaluazio gainditu gabe dituen ikasleak, kurtso osoaren berreskurapena egin beharko du.**

Salbuespena: hirugarren ebaluazioak berreskurapen azterketa espezifikorik ez duenez (globalean egiten baita), salbuespen hau egingo da:

Bi ebaluazio gainditu gabe izanik: horietako bat 3. ebaluazioa bada, eta beste ebaluazioan (1.a edo 2.a) 4 baino gehiago badauka, ikasleak aukeratu du: **edo** ikasturte osoko berreskurapena egitea, **edo** 3. ebaluazioko berreskurapena egitea bakarrik.

EKAINENKO NOTA

Ikasturtean lortutako hiru ebaluazioen arteko batez bestekoa egingo da dena gainditu denean edo ebaluazio bakar bat suspenditua dagoenean (nota gutxienez 4,0 denean).

Froga globala osoa egin dutenentzako ekaineko nota honela kalkulatu da: azterketa globalaren nota: % 70a, kurtso osoan izandako batez besteko nota: % 30-a.

Ikasgaia gainditzeko 5,0 eskatu da.

EZ-OHIKO DEIALDIKO NOTA :

Kurtso osoko froga globala egiten da. Azken nota, frogan lorturiko nota izango da. Gainditzeko 5,0 atera beharko da.

Errekerazio kasu guztietarako: errekeratzen den ebaluazioaren azken nota %30-%70 portzentajeak aplikatuz gero lortuko da; portzentaje hauek aplikatzean 5 baino gutxiago ematen badu, baina bestetik errekerazioko azterketa gaindituta balego (5 edo altuagoa), kasu honetan ebaluazioko azken nota "5" izango da.

NOTA IGOTZEA

Ebaluazioko nota igo nahi duenak, errekerazioko azterketara aurkeztu daiteke. Ebaluazioko azken nota, errekerazio sistemaren bidez kalkulatu da (%30-%70)

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluatzeke tresnak:

- Gelako koadernoak: edukia, aurkezpena, garbitasuna, antolamendua eta argitasuna baloratuko dira .
- Azterketa froga: edukia, azalpenen zehaztasuna, arrazionamendua, marrazki eta eskemen erabilpena, garbitasuna, letra ona, argitasuna eta marjinak mantentzea.

Kopiatzea: banakako lan batean, etxera bidalitako jardueretan eta abar, ikasle batek beste ikasle bati kopiatzen badio, lan horretan "0" kalifikazioa izango du. Modu berean, azterketa batean txuleta, mobila, liburua, edo beste edozein modu harrapatzen bazaio ikasleari, naiz eta erabiltzen aritu ez, azterketa erretiratuko zaio eta froga horretan "0" kalifikazioa izango du.

Epeak: Bidalitako lanak, ariketak, eta abar, ezarritako epean entregatu behar dira. Epez kanpo entregatzen badira, kalifikazioan eragina izango du, atzerapenaren arabera, eta gehienez "5" kalifikazioa izango du.

Formulazioa eta izendaketa kimikoa:

Formulazioak trataera berezia du Batxilergo 2. mailan. Ezinbestekoa da formulazioa gaintitza kurtsoa gaintitzeko. Formulazioan, gutxienez formulen %75a eduki behar da ongi azterketa gaintitzeko.

- Formulazioaren azterketa lehenengo ebaluazioan egingo da. Formulazio inorganikoa eta formulazio organikoa balio berekoak izango dira. Formulazioa gaintitzeko formulazio atal bakoitza gaintitu behar da.
- Formulazioa gaintitzen ez den arte, lehenengo ebaluazioa suspendituta geratuko da, "3" edo nota baxuagorekin.
- Formulazioa honela puntuatuko da:

Formulen %75 ongi (15/20) ⇒ nota: 5/10

Formulen %80 ongi (16/20) ⇒ nota: 6/10

Formulen %85 ongi (17/20) ⇒ nota: 7/10

Formulen %90 ongi (18/20) ⇒ nota: 8/10

Formulen %95 ongi (19/20) ⇒ nota: 9/10

Formulen %100 ongi (20/20) ⇒ nota: 10/10

- **Formulazioaren berreskurapena:**

- Suspenditu den atala berreskuratzen da bakarrik (inorganikoa, organikoa edo biak).
- Lau berreskurapen azterketa egongo dira (ebaluazio bakoitzean berreskurapen azterketa bat, eta globalean azkena).
- Behin formulazioko berreskurapen azterketa gaintitzen denean, orduan kalkulatu da lehen ebaluazioko behin betiko nota.

BIRIBILTZE IRIZPIDEAK

Ebaluazio bakoitzaren nota bat jarriko da. Ebaluazio bakoitzak aipatutako unitateak ditu barne. Ebaluazioa suspenditu ezker, errekupeazioak egingo dira eta ebaluazioko nota kalkulatu da berriro, aipatutako irizpideei jarraituz.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 0-5 tartean. Gaintitzeko baldintza 5era iristea da.

0 - 1,4...	1 - GUTXIEGI
1,5 - 2,4...	2 - GUTXIEGI
2,5 - 3,9...	3 - GUTXIEGI
4,0 - 4,9...	4 - GUTXIEGI
5,0 - 5,4...	5 - NAHIKOA
5,5 - 6,4...	6 - ONGI
6,5 - 7,4...	7 - OSO ONGI
7,5 - 8,4...	8 - OSO ONGI
8,5 - 9,4...	9 - BIKAIN
9,5 - 10	10 - BIKAIN

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.